

2017ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sariak

Proiektuak aurkezteko oinarriak

Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareak, Educok eta Edebé Argitaletxeak 2017ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarietan parte hartzeko dei egiten die Haur eta Lehen Hezkuntzako, DBH - Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeei nahiz gizarte-erakundeei.

Sariaren helburuak

1. Ikastetxeen eta ikasleen ikaskuntza kontuan hartzen duten gizarte-erakundeen lana aitortzea, erkidegoaren bizi-kalitatea hobetzeko ekintza solidarioak garatzen dituzte-eta.
2. Ikaskuntza-zerbitzuko jarduerak hezkuntza arrakastatsurako eta konpromiso sozialerako tresnak direla aitortzea.
3. Konpromiso sozialerako partaidetzako kultura solidarioa indartzea eta zabaltzea eta, horretarako, zabalkundea suspertzea eta ikaskuntza-zerbitzua ezartzea.

Ezaugarriak eta eskakizunak

1. Nork hartu ahal izango du parte?

Haur eta Lehen Hezkuntzako, DBH - Batxilergoko eta Lanbide Heziketako¹ **ikastetxe** publiko, itunpeko edo pribatu guztiek hartu ahal izango dute parte 2016ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien deialdian, baldin eta edozein autonomia-erkidegotan ikaskuntza-zerbitzuko jarduerak garatzen badituzte.

Halaber, **gizarte-erakundeek** ere hartu ahal izango dute parte (gazteen mugimenduak eta elkarteak, astialdirako elkarteak, eskauten elkarteak, boluntarioen elkarteak, ingurumeneko elkarteak, kulturalak...), baldin eta edozein autonomia-erkidegotan ikaskuntza-zerbitzuko jarduerak garatzen badituzte.

Aurreko deialdian saritutako ikastetxeek eta gizarte-erakundeek ezin dute berriro proiektu bera aurkeztu, baina bai beste proiektu batzuk.

Aurreko deialdian finalista izan diren ikastetxeek eta gizarte-erakundeek berriro proiektu bera aurkezteko aukera dute, 2016-2017 ikasturtean burutu bada, eta beste proiektu batzuk ere aurkez ditzakete.

Sariak hezkuntza-sektore ez-unibertsitarioentzat direnez, instituzio unibertsitarioek ezin izango dute ikasle unibertsitarioak protagonista dituzten proiekturik aurkeztu, baina parte hartu ahal izango dute deialdian aurkeztutako ikastetxeen edo gizarte-erakundeen laguntzaile gisa. Ikastetxe edo gizarte-erakunde bakoitzak nahi adina proiektu aurkez ditzake, oinarrien arabera.

Ezinbestekoa izango da deialdian aurkeztu den proiektuak **instituzioko** (ikastetxeko edo gizarte-erakundeko) **zuzendariaren abala edukitzea** eta ez bakarrik proiektuko arduradunarena.

Ikastetxe edo gizarte-erakunde bakoitzak **nahi adina proiektu** aurkez ditzake, oinarrien arabera.

¹ Kontzeptuak honako hauek biltzen ditu: Oinarrizko Lanbide Heziketa; Erdi eta Goi mailako heziketa Zikloak; heziketa egokitua edo berezia eta premia bereziak dituzten ikasleen zereginen ikaskuntza; Lanbide heziketa artistikoa, helduen hezkuntza eta enplegurako formazioa.

2. Nolako proiektuak aurkez daitezke?

Oso-osorik **2016-2017ko ikasturtean** garatu diren ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak baino ez dira onartuko. Beraz, ez da epealdi hori baino lehen egindako eta amaitutako esperientziarik onartuko, ezta oraindik zehaztu ez den proiekturik ere.

Aurkez daitekeen ikaskuntza-zerbitzuko esperientzia hiru eredu hauetako batekin identifikatu beharko litzateke:

A eredua) Ikastalde edo, gizarte-erakundeen kasuan, adin-talde baten proiektua.

B eredua) Ikastetxe edo gizarte-erakunde osoaren proiektua edo hainbat ikastetxek partekatua, edo ikastaldetik gorako dimentsioa duen taldearena.

Honako honi deritzogu **Ikaskuntza-Zerbitzua**:

Hezkuntza-proposamen honek ikaskuntzako eta komunitatearentzako zerbitzuko prozesuak bateratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar batean. Proiektu horretan, parte-hartzaile guztiek ingurune benetako premietan lan egiten ikasiko dute, hura hobetzeko asmoz.

3. Zer hartuko da kontuan, batez ere?

Ikasmaila eta proiektuaren gaia direnak direla, epaimahaiak honako hauek izango ditu kontuan:

- a) Ikaskuntzen eta garatutako zerbitzuaren arteko lotura estua.
- b) Zerbitzuaren bidez ume eta gazteek kontuan hartzen duten premia sozialaren egiazkotasuna eta garrantzia.
- c) Ume eta gazteen partaidetza aktiboa proiektu osoan: premiak ikertzean, proiektua diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean.
- d) Lurraldeko ikastetxeen eta gizarte-erakundeen arteko sareko lana, proiektua abian jartzeko orduan.
- e) Proiektuaren hartzaile diren pertsonetikiko harremana, ahal den neurrian haiek ere parte-hartze aktiboa izateko.
- f) Justizia Sozialaren eta Giza Eskubideen ikuspegia izatea.
- g) Gizarte-bazterketako arriskuan dauden biztanleek bultzatutako proiektuak.
- h) Ekitatea generoaren ikuskeran.
- i) Ingurumena zaintzeko ikuspegia.
- j) Jardueraren garrantzia, honako hau kontuan hartuta: proiektuan inplikaturako ume edo gazteen kopurua, zerbitzuko hartzaileen kopurua eta proiektuaren iraupena.
- k) Ikasleen ikaskuntzan ikerketa, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa bultzatzen duten ekintzak.
- l) Ikastetxetik edo gizarte-erakundetik kanpo eta ingurune hurbilean garatutako zerbitzua, ageriko inpaktua eragiten duena.
- m) Proiektuan landutako gaiari buruz komunitatea sensibilizatzeko/kontzientziazteko ekintzak barne hartzen dituzten proiektuak.
- n) proiektuaren jasagarritasuna eta konpromezuaren iraunkortasuna.
- o) Ikaskuntza-Zerbitzua kontzepturane ikusgarritasuna, hezkuntza-proposamena den aldetik.

4. Nola aurkeztu behar da proiektua?

Proiektuak **formatu digitalean** eta estatuko **edozein hizkuntza ofizialetan** aurkeztuko dira honako hauen bidez:

1. Izena emateko **orria bete**. Online eskuragarri: www.aprendizajeservicio.com
 2. Orri horri erantsiko zaio proiektuaren **deskribapen-dokumentua** (ikus 1. eranskina). Luzera-mugak:
 - A ereduko proiektuak: gehienez, 6000 hitz eta 12 orrialde.
 - B ereduko proiektuak: gehienez, 7000 hitz eta 14 orrialde.
 3. Deskribapen-dokumentuan esperientziari buruzko **bideo** baterako esteka jarriko da. (ikus 2. eranskina).
- Ez dira aurkezpenak onartuko, adierazitako tamaina baino handiagoak badira edo 2. eranskinean zehaztutako osagaien bat ez badute.

5. Nora eta noiz bidali behar da proiektua?

Deialdian parte hartzeko, online izena emateko orria eta deskribapen dokumentua (bideoaren linka duena) aurkeztu beharko dira **2017ko maiatzaren 30etik irailaren 30era bitartean**, Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien webgunearen bidez: www.aprendizajeservicio.com

6. Zer sari egongo dira?

Ohitura osasungarriak sustatzeko eta gizentasunaren prebentziorako Sariak, DKV Seguros-en kolaborazioarekin.

3 sari: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; DBH - Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. 2.000 eurokoa bakoitza.

Elkartasuna / Giza eskubideak sariak, La Caixa Gizarte Ekintzaren kolaborazioarekin.

3 sari: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; DBH - Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. 2.000 eurokoa bakoitza.

Irakurzaletasuna sustatzeko saria, edebé-ren kolaborazioarekin.

Sari 1: liburu sorta bat, hiru mailetako edozeinentzat.

Garapenerako lankidetzua Saria, Educo-ren kolaborazioarekin.

Sari 1: material didaktikoa, hiru mailetako edozeinentzat.

Ingurumen Saria, Red Española de Aprendizaje-Servicio sarearen kolaborazioarekin.

Sari 1: material didaktikoa, hiru mailetako edozeinentzat.

Genero-ekitatea, Fundación Anabella, Mullor S.A. eta Abacus-en kolaborazioarekin.

Sari 1: material didaktikoa, hiru mailetako edozeinentzat.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen inklusioa Saria, ACIDH-en kolaborazioarekin.

Sari 1: material didaktikoa, hiru mailetako edozeinentzat.

Topaketen hiriko Ikaskuntza Zerbitzua proiektu baterako Saria.

Sari 1, 2.000 eurokoa, hiriko proiektu baterako.

Sari horien guztien osagarri da saritutako zentroetako 4 ordezkariarentzat (2 hezitzaile eta 2 ikasle) sari-banaketan parte-hartzeko gonbidapena. Bidaia eta ostatua ere kolaboratzaile diren enpresa eta erakundeek hartuko dute beren gain.

Sariaren zenbatekoa aurkeztutako esperientzia garatzeko eta zabaltzeko erabili beharko da, edo beste bat abian jartzeko. Esperientzia ikastetxe edo gizarte-erakunde batek baino gehiagok aurkeztu badute, inplikaturako alderdiek saria nola banatu erabaki beharko dute, eta epaimahaiak jakintzat emango du esperientzia aurkeztu baino lehen hartu dela erabaki hori.

7. Non eta noiz banatuko dira sariak?

Sariak **abenduaren 1ean** banatuko dira Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareak L'Hospitalet de Llobregaten egingo duen X. Topaketaren barruan.

Ikaskuntza-Zerbitzua Sarien webgunean iragarriko da, 2017ko azaroan, zer proiektuk lortu duten saria: www.aprendizajeservicio.com

8. Nork ebaluatuko ditu proiektuak?

Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareko, Educoko, Edebé argitaletxeko eta enpresa eta erakunde kolaboratzaileetako kideek osatuko dute epaimahaia. Proiektuen ebaluazioan 40 adituk hartuko dute parte.

9. Oinarrien onarpena

2017ko Ikaskuntza-Zerbitzua Sarietan parte hartzen duten ikastetxeek eta gizarte-erakundeek deialdi honetako oinarriak onartu beharko dituzte, baita epaimahaiaren ebazpenak ere. Instantzia bakarrean hartuko ditu erabakiak, eta ezin ezingo da haien aurkako berrazterketa- eta apelazio-errekurtsorik aurkeztu.

Epaimahaiaren erabakiaren berri izan ondoren, deialdi honetan aurkeztu diren proiektu guztiak, sarituak nahiz ez sarituak, esperientzien bankuan sartu ahal izango dira, Espainian ikaskuntza-zerbitzuaren arloan egiten diren jarduera egokiak zabaltzeko asmoz. Proiektuen bilduma hori deialdia egiten duten erakundeen webguneetan argitaratu ahal izango da.

Online izena emateko orria

Orri hori eskuragarri dago aprendizajeyservicio.com webgunean eta hari erantsi beharko zaio proiektuaren dokumentua, bideorako esteka duena.

1. eranskina: proiektuaren deskribapen-dokumentuaren eredia

Eskakizunak

- a) Deialdian parte hartzeko, proiektua azaltzen duen agiria eta parte hartzeko eskabide-orria aurkeztu beharko dira, eta biak formatu digitalean egon beharko dira. Horrez gain, esperientziaren bideoa ere aurkeztu beharko da.
- b) Edonola ere, abian jarritako proiektua izan behar du eta ez oraindik zehaztu gabe dagoen ideia.
- c) Agiriak **12 orrialde eta 6.000 hitz izango ditu gehienez**, A ereduko proiektuen kasuan (ikus oinarriak). B ereduko proiektuen kasuan, 2 orrialde izan ditzakete marko orokorra aurkezteko sarrera gisa, baina **gehienez 14 orrialde eta 7.000 hitz** izango dituzte.
- d) Eskemak, argazkiak eta era guztietako ilustrazioak txertatu ahal izango dira, baldin eta orrialdeen eta karaktereen kopurua gainditzen ez badute.
- e) Agirian, ondoren zehaztutako atalak azaldu beharko dira ezinbestean:
 - Sarrera - Marko orokorra (**soilik** B eredukoentzat).
 - 1. Proiektuaren laburpena eta bideoaren esteka.
 - 2. Proiektuaren xede den premia soziala.
 - 3. Neska-mutilen hezkuntza-premiak.
 - 4. Zerbitzuaren deskribapena eta zer ataza dituen
 - 5. Ikaskuntzaren helburuak/gaitasunak eta curriculumarekiko loturak.
 - 6. Ikaskuntza- eta hausnarketa-jarduerak
 - 7. Neska-mutilen partaidetza eta protagonismoa.
 - 8. Proiektuak eskatzen duen sareko lana.
 - 9. Ospakizuna eta zabalkundea.
 - 10. Proiektuko faseen egutegia eta deskribapena.
 - 11. Proiektua bideratzeko behar diren baliabideak.
 - 12. Proiektuaren ebaluazioa.

Proiektua egiteko orientazioak

0. Proiektuaren markoa

Adi: Atal hau soilik B eredukoentzat da. Proiektuaren garrantzia ahalik eta modu argi eta zehatzenean deskribatzeko izango da, eta 2 orrialde edo 1.000 hitz izango ditu gehienez. Proiektuan parte hartuko duten erakunde/ikastetxeen arteko lotura eta koordinazioa zehaztuko dira.

Ondorengo atalak jakineko proiektu bati buruzkoak soilik izango dira, 0 atal honetan bat baino gehiago aipatzen badira ere.

1. Proiektuaren laburpena eta bideoaren esteka

Proiektuaren sarrera laburra eta argia egingo da, eta **ez ditu 150 hitz baino gehiago** izango. Bertan, parte-hartzaileek garatutako zerbitzua eta lortutako oinarritzko ikaskuntza azalduko dira labur-labur.

Adibidea: DBH3ko ikasleek, Indian legenardunekin zerikusia duten haurren bazterketa-egoera aztertutakoan, "**JALekin korrika**", **lasterketa solidarioa** antolatu dute **dirua biltzeko**, GKE horrek Pondycherriko haurrei laguntzeko ospatzen dituen Olinpiadak bultzatzeko. Haur hartzaileek gure haurrei erakutsiko diete **Kabaddi**, Indiako jokorik zabalduenetako bat. Lasterketan DBHko beste maila batzuetako gazteek hartuko dute parte.

Bideoaren esteka: XXX

2. Proiektuaren xede den premia soziala.

Proiektuaren eta parte-hartzaileen lanaren helburu den jakineko erronka, arazo edo premia sozialaren azalpen laburra (kulturala, asistentziala, hezkuntzako, ingurumenekoa, osasun-arlokoa, giza eskubideen arlokoa...).

Adibideak: zenbait pertsona-talderen bazterketa-egoera; hiri-esparru degradatuen berriztapena; adinekoen isolamendua; maskotak abandonatzea; haurrekiko tratu txarrak; haurren gizentasuna jaitea...

3. Neska-mutikoen hezkuntza-premiak.

Proiektuaren egokitasuna justifikatzea umeen hezkuntza-premietan oinarrituta.

Adibideak: umeek adinekoekin dituzten errespeturik gabeko jarrerak; Zenbait gaitasun (hezkuntza komunikaziorakoa, matematikoa, zientzia, ekologia...) lantzeko beharrezakoa; talde-laneko trebetasunak jorratzeko premia...

4. Zerbitzuaren deskribapena eta atazak

Describir la finalidad del servicio y el "manos a la obra", es decir, las principales actividades y tareas del servicio que realizaron los chicos y chicas y su repercusión en el entorno, citando, en la medida de lo posible, los resultados tangibles que se debían alcanzar.

"Lanari ekitea" deskribatzea, hau da, umeek egindako zerbitzuko jarduera eta zeregin nagusiak eta ingurunean izandako eragina deskribatzea, ahal dela nabarmentzen diren emaitzak barne.

Adibidea: (inguruko parkea garbitzeko kanpaina diseinatzea, antolatzea eta abian jartzea): dendetan jartzeko kartelak egitea; bideoak egitea eta sare sozialetan esekitzea; kanpaina aurkezteko eta laguntza eskatzeko auzokide-elkartearekin biltzea ...

5. Ikaskuntzaren helburuak eta curriculumeko loturak.

Proiektuak neska-mutikoengan indartu nahi dituen hezkuntza-helburu nagusien aipamena. Proiektuko 3 edo 4 esanguratsuenak soilik labur bezain argi aipatzea gomendatzen dugu.

Adibidea: (lasterketa solidarioaz): 1) legenardunen egoeraren berri izan eta gaixotasunari buruz dauden ideia okerrak azaleratu; 2) Desberdintasunekiko eta bidegabekeriekiko elkertasuna eta sentiberatasuna agertu; 3) Egitasmo solidario bat abiatzen ikasi.

Garatutako zerbitzuaren helburu diren curriculumeko arlo edo gaiekin lotzea edo, gizarte-erakundeen kasuan, berezko hezkuntza-arloekin lotzea. Zerrenda hori eskema rdo marrazki batean jartzea gomendatzen dugu.

6. Ikaskuntza- eta hausnarketa-jarduerak.

Zerbitzuarekin zuzenean lotutako ikaskuntzako jarduera nagusien azalpena. Ikasgelako jarduerak edo landa-lanari buruzko ikerketako jarduerak dira.

Adibideak: parke publiko bat babesteko, beharrezan ikerketa; gerraondoko elikadurari buruzko ikerketa; urmael bateko landare-espezie egokien azterketa egitea; Wonder irakurtzea eta bazterkeziak hausnartzea...

7. Neska-mutikoen partaidetza eta protagonismoa.

Proiektuaren partaidetza eta protagonismoa, haren garapenean eta ebaluazioan, nola sustatu ziren aipatzea.

Adibidea: nola sortu zen ideia eta nola bere egin zuen taldeak, zereginen banaketa eta kontrola, proiektuaren izena aukeratzea, eskatutako konpromiso pertsonala, emaitzen kontrola eta balorazioa, etab.

8. Proiektuak eskatzen duen sareko lana.

Proiektua partekatzen duten erakundeek, ikastetxeen edo instituzioen aipamena, haien zeregina zein den eta euren artean nola koordinatzen diren azalduz.

9. Ospakizuna eta Zabalkundea.

Proiektuaren emaitza nola erakutsi/ospatzen den azaltzea: jaia, aitorpenerako ekitaldia, hartzaileekin egindako topaketa, ikastetxeko ikasturte-amaierako jardueretan izandako agerpena.

Proiektua ingurunean eta familietan zabaltzeko erabilitako baliabideen eta estrategien azalpena: webgunea, informazio-bilerak, sare sozialak, prentsa, diptikoak, telebista...

10. Proiektuaren faseen egutegia eta azalpena.

Proiektuaren garapenerako epealdiaren eskema eta proiektuaren faseen azalpen laburra.

11. Proiektua bultzatzeko baliabideak.

Proiektuan izan diren baliabideen laburpena (materialak, ekonomikoak, pertsonak...), ikastetxeak edo erakundeak erabilitakoak.

12. Proiektuaren ebaluazioa.

Proiektuan egindako ebaluazioaren ondorioen aipamena, dimentsio pedagogikoa eta zerbitzu-dimentsioa kontuan hartuta (proposatutako helburuak lortu diren ala ez, antzemandako zailtasunak...), baita protagonisten partaidetza-mailaren, gizarte-erakundeak edo hartzaileek egindako balorazioaren, proiektuaren indarguneen eta hobetu beharreko puntuen eta abarren aipamena ere.

2. eranskina. Bideoa aurkezteko oinarriak

Bideoaren helburua:

Bideoa ikaskuntza-zerbitzuko proiektua azaltzen duen agiriarekin batera aurkeztuko da, eta hura argitzea du xede, baina, batez ere, proiektua abian jartzeko unea. Horrez gain, parte-hartzaileek nabarmendu nahi dituzten faktoreak jasotzea, eta jakineko proiektua eta ikaskuntza-zerbitzua zabalitzen laguntzea.

Eskakizunak

1. Bideo bakarra aurkeztuko da ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bakoitzeko.
2. Bideoak originala izan behar du, eta eskubiderik ez duten irudiak zein soinu-bandak erabili beharko dituzte egileek.
3. Ez da onartuko aurkeztutako proiektuaren gai desberdinak jorratzen dituen bideorik, ezta publizitateko edukiak dituztenak edo ikaskuntza-zerbitzuko pedagogiaren oinarri diren balio etikoen aurkakoak direnak ere.
4. Bideoak Youtubera edo Vímeora igo beharko dira “publikoa” modalitatean, eta izena emateko orrian nahiz deialdian aurkeztutako proiektuko agirian jarri beharko da esteka.
5. Batez ere, proiektua argitzeko helburuari eusten dioten eta 5 minututik beherako iraupena duten bideoak balioetsiko dira.

Lege-erantzukizunak

1. Proiektuko arduradunek bermatu egin beharko dute bideoan agertzen direnen baimena eta adingabeen gurasoen edo legezko tutoreen baimena lortu dituztela².
2. **Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareak, Educok eta Edebé Argitaletxeak** jakintzat emango dute deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeek eta gizarte-erakundeek gurasoek edo legezko tutoreek behar bezala sinatutako baimen hori dutela eta, beraz, ez dute arlo horretako inolako erantzukizunik izango.
3. Bideoen egileek Creative Commons (by-nc-nd)³ lizentziara atxikitzea onartzen dutenez, jakin badakite lehiaketara bidaltzen dituzten lanak edonork erabili ahal izango dituela, betiere, iturria aipatzen bada (egilea, ikastetxea edo gizarte-erakundea eta data).
4. **Espainiako Ikaskuntza-Zerbitzua Sareak, Educok eta Edebé Argitaletxeak** ez dute aurkeztutako bideoen edukiarekin lotutako inolako lege-erantzukizunik izango, ezta jabetza intelektualaren, industrialaren edo irudikoaren ez-betearazpenarekin eta deialdi honetako oinarrien betearazpen partzialarekin ere. Beraz, egileak baino ez dira bideoaren eta bertako edukien legezko erantzuleak izango.
5. Lehiaketa honetan parte hartzean, oinarri hauek onartuko dira, eta oinarriok betetzeko konpromisoa ere hartu beharko da.

² Honako hauek kontuan hartuta: Konstituzioko 18.1. artikulua, Ohorerako, Intimitate Pertsonal zein Familiarrerako eta Irudirako Eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren bidez araututakoa; eta 18.4. artikulua, Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren bidez araututakoa.

³ Aitorpena - Ez-komertziala - Obra eratorririk gabe (by-nc-nd).